

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEAREN ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Zerbitzu Juridiko Administratiboa

Gasteizko zarataren mapa estrategikoari hasierako onespena ematea (MER-2022)

Hauxe erabaki zuen Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko irailaren 2an egindako ohiko bilkuran:

“Lehenengoa. Gasteizko udalerriko zarataren mapa estrategikoari hasierako onespena ematea (MER-2022).

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn eta EHAAan argitaratzea eta jendaurrean jartzea hilabetez, herritarrek egoki irizitako alegazioak eta iradokizunak aurkezterik izan dezaten, Zaratari buruzko 37/2003 Legearen 5. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 13.1 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Erabaki horren kontra ez dago errekurtsorik aurkezterik, izapide-egintza izaki”.

Dosierra aipatutako epean kontsultatu ahalko da, San Martineko bulego teknikoetan (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25). Era berean, Gasteizko zarataren mapa estrategikoa udalaren web orrian eskura dezakete herritarrek: www.vitoria-gasteiz.org.

Beraz, jendaurrean jartzen da, arestian aipatutako legedian xedatutakoari jarraiki.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko irailaren 14an

Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren administrazio burua
EUSEBIO-MARTÍN MACHO PÉREZ